

2.- SEGMENTAZIOA

Gure produktua merkatu-nitxo batentzako diseinatuta dago. Merkatu-nitxoa bezero oso zehatzak edo berezituak dituen segmentua da. Izan ere, gure produktua ez da erosle bakarra edo talde txiki batek erosiko duen produktua bere egunerokoan erabiltzeko. Produktu hau, bakarrik pertsona batzuk laguntzeko erabilgarria da, itsuei laguntzeko bereziki, beste kasu bat izango litzateke pertsona batzuk gaizki ikustea edo arazoren bat edukitzea txikitatik gauza batzuk ikusteko, ondorioz gure produktua ere haientzat diseinatuta egongo lirateke. Beraz, itsuen taldearentzat prestatuta dago, itsuek laguntzen duten enpresentzat eginda dago produktua hau, eta enpresa horiek, zuzenean itsuei lagunduko lituzkete. Guk, itsuen hainbat erakundeei salduko genioke eta haiek, kaleratu egingo lukete gure produktua eta itsuen bizitza errazago izango da.

Gure ideia, bereziki itsuen enpresetara eta udaletxera bideratuta dago. Ez dugu bakarrik enpresa mota haiei saldu behar, Udaletxeari gure produktua eskaini behar diogu ere bai, haien laguntza behar dugulako, produktua leku publikoetan jarri behar delako eta haiek arduratzen direlako horretaz. Adibidez, autobus geltokietan, tranbia geltokietan... jarri ahalko zen, itsuek edonora joaterako errazago edukitzeko, horretarako, udaletxearekin eta itsuen enpresekin ("La Once" adibidez) hitz egingo behar genuke, batetik enpresa horiek bere bezeroei nola funtzionatzen duen eta non aurkitu ahal duten azaltzeko, eta bestetik, udaletxearekin zer nolako toki publikoetan jarri ahalko zen, esan dugunez, autobus geltokietan, tranbia geltokietan eta beste zenbat toki publikoetan.